


# Denbora-



## 1 Margotu eta asmatu

Aitorren amari izugarri gustatzen zaizkio, eta usain ona dute. Zer da? Margotu lauki bakoitza dagokion kolorearekin, eta asmatuko duzu.



- 1. Horia
- 2. Gorria
- 3. Laranja
- 4. Urdina
- 5. Orlegia

**Erantzunak:** 1.- Landarea. 4.- a) Txupa-txusa, besteak frutak direlako. b) Luma, gainerakoak arkatzarekin loturiko elementuak direlako. 5.- Trikuharri bat.

## 2 Hitz gurutzatuak

Maiderekin hainbat erosketa egin ditu, eskolan hasterako. Hona hemen erosi dituen gauzen zerrenda. Hitz gurutzatuetan behar den lekuan kokatu behar duzu hitz bakoitza.

- **Prakak**
- **Alkandora**
- **Zapatak**
- **Jertsea**




## 3 Labirintoa

Txurro gaixoak txokolatetz busti nahiko luke, baina ez du modurik ikusten. Lagunduko diozu katilura daraman bidea aurkitzen?

# - pasak

## 4 Zer dago sobran?

Amaiak bizkar zorroan gauza ugari sartu ditu. Haietako batzuk, ordea, lekuz kanpo daude. Ilara bakoitzean gauza bat dago sobran. **Ba al dakizu zein den, eta zergatik?**



## 5 Inkesta

Garai batean eraiki zituzten, eta gure historiaren lekuko dira. Zertaz ari garen jakiteko, galderen erantzun egokia bilatu eta, ondoren, laukiak margotu. **Horra irudia!**

### 1.- Zenbatero jokatzeko dira Olinpiar Jokoak?

(Erantzun egokia marroiez margotu)

- 1.- Urtero.
- 2.- Bi urtean behin.
- 3.- Lau urtean behin.

### 2.- Nola izena du Doraemonen azken filmak?

(Erantzun egokia marroiez margotu)

- 4.- Doraemon gladiadorea.
- 5.- Doraemon eta maien inperioa.
- 6.- Doraemon eta hego itsasoetako piratak.

### 3.- Zein herritan izaten da gazta lehiaketa ezaguna?

(Erantzun egokia marroiez margotu)

- 7.- Ordizian.
- 8.- Lekeitio.
- 9.- Mutrikun.


### 4.- Zein da Edurne Pasaban eta Juanito Oiarzabal igo diren azken mendia?

(Erantzun egokia marroiez margotu)

- 10.- Cho Oyu.
- 11.- K2.
- 12.- Everest.

### 5.- Zein probintzian dago Santa Klara uhartea?

(Erantzun egokia marroiez margotu)



- 13.- Bizkaian.
- 14.- Lapurdin.
- 15.- Gipuzkoan.



### 6.- Nola izena du Betizu taldeko behi suitzarrak?

(Erantzun egokia marroiez margotu)

- 16.- Betisuis.
- 17.- Emeu.
- 18.- Betizu.

## Katuak eta arratoia

Harrapaketako jolas bitxi bat da. Arratoi gaixoa, galtzeko arrisku handia duen arren, gogotik saiatuko da bere helburua betetzen.



**1** Jolasean hasi aurretik, jolaserako taula prestatu behar da. Kartoi mehe zuri laukidunean lauki beltzak marraztu edo itsatsi behar dira. Kartoi mehe zuriak 24 zentimetro zabal izan behar du, eta marraztu beharreko lauki beltzek, berriz, 3 zentimetro zabal (irudian ikusi nolakoa behar duen sortu beharreko taula).

**2** Hurrengo pausoa fitxa bakoitza jolasaren abiapuntuan kokatzea da. Fitxa gorria arratoia izango da, eta gainerako 4 fitxa berdeak, aldiz, katuak.

**3** Jokalari bakoitzak, txandaka, fitxa lekuz mugituko du. Arratoia diagonalean bakarrik mugitu daiteke, eta lauki bakarra aurrera dezake. Aurrerantz edo atzerantz soilik mugitu ahalko da. Katuak ere diagonalean mugituko dira, baina bakarrik aurreraka joan daitezke.

**4** Fitxa batek ezin du bestea harrapatu. Katuak atzean utzita, taularen ertzerira iristen ahaleginduko da arratoia. Katuek, berriz, arratoia inguratzen saiatuko dira, mugitu ez dadin eta taularen ertzerira iritsi ez dadin. Helburua betetzen duen lehenak irabaziko du jolasa.